

UDALAK “*BILBO, ADINEKOEKIN ADEITSUA DEN HIRIA*” SARIAK BANATU DITU

- Udalak antolatutako “*Bilbo, adinekoekin*” galaren zati bat izan da sarien banaketa. *Juan Mari Aburto* Alkatea izan da galan buru eta adineko ehunka lagunek gozatu ahal izan dute *Asier Bilbaoren* eta *Los Chimberos* taldearen musika emanaldiez.
- Saridunek ibilbide pertsonal eta altruista bat daukate, urte asko baitaramatzate bizikidetzarekin eta Bilboko bizi-kalitatearen hobekuntzarekin konprometituta, auzoekin eta auzokoekin konprometituta.
- Aurtengo saridunak dira *Iñaki Irigoien*, *Araceli Rozas* eta *Encarnación Velasco*.

(*Bilbon*, 2021eko urriaren 21ean).- *Juan Mari Aburto* alkateak “*Bilbo, Adinekoekin Adeitsua den Hiria*” sariak eman ditu gaur arratsaldean. Sari horiek 60 urtetik gorako pertsonen aparteko dedikazioa eta emana aitortzen dute, nabarmentzen direnak uria bizitzeko leku atseginagoa izan dadin egindako ekarpenagatik.

Saridunek ibilbide pertsonal eta altruista bat daukate, urte asko baitaramatzate bizikidetzarekin eta Bilboko bizi-kalitatearen hobekuntzarekin konprometituta, auzoekin eta auzokoekin konprometituta, zerbitzurako jarrerarekin eta izateko, egoteko, jarduteko eta denekin harremanak izateko modu eredugarri batekin.

Aurten, Udalak pertsona hauek nabarmendu ditu:

- **Iñaki Irigoien**, 1935ean jaiotako bilbotarra, euskal folkloreak eta, zehazkiago, euskal dantzaren munduari egindako ekarpenagatik.
- **Araceli Rozas**, 70 urtekoa, Leónen jaioa baina Zurbaranbarri auzoko bizilaguna, Gurutze Gorriaren bidez adinekoak eta droga-mendetasuneko arazoak dituzten pertsonak zaintzeagatik, beren bizitza profesionalean eta, gero, boluntario modura.
- **Encarnación Velasco**, 93 urteko bilbotarra, bere ausardiagatik, erabakiagatik eta izaera zerbitzalagatik. Gaztetan, Encarnación Velascok, baliabide gutxirekin, Belgikara emigratu zuen, semeari aukera gehiago emateko. Bilbora itzuli zenean, nabarmentzekoa da Errekalde auzoko gizarte-jardueretan parte hartu izana.

Juan Mari Aburto Alkateak zorionak eman dizkie omendutako pertsonari, “*arrazoi askorengatik eredu zaretelako. Hirurok bat zatozte hiri hobe bat eraikitze konpromisoarekin, balioak oinarri dituen gizarte hobe bat eraikitze konpromisoarekin. Eskerrik asko bihotzez., zuen onena emateagatik eta irakasteagatik, besteen zerbitzura egoteagatik... animatzen zaituztegu egiten jarraitzera. Nahi dugun zahartze aktiboaren eredu zarete*”.

“BILBO, ADINEKOEKIN” GALA

Sari hauen banaketa **“Bilbo, adinekoekin” galan** izan da, Udalak antolatua eta Joseba Solozabal eta Agurtzane Bilbao Nervión Taldeko aurkezleek gidatua. Ekitaldia Campos Elíseos Antzokian egin da eta ehunka adineko izan dira bertan, Asier Bilbao eta Los Chimberos-en emanaldiez gozatuz.

EL AYUNTAMIENTO ENTREGA LOS PREMIOS “**BILBAO, CIUDAD AMIGABLE CON LAS PERSONAS MAYORES**”

- La entrega de los galardones ha formado parte de la Gala “*Bilbao, con las Personas Mayores*”, organizada por el Consistorio y presidida por el Alcalde, **Juan Mari Aburto**, en la que cientos de personas mayores han podido disfrutar de las actuaciones musicales de *Asier Bilbao* y *Los Chimberos*.

- Estos premios reconocen la trayectoria personal y altruista de quienes desde hace muchos años están comprometidas con la convivencia y con la mejora de la calidad de vida de Bilbao, sus barrios y sus vecinos y vecinas.

- Los reconocimientos han recaído este año en **Iñaki Irigoien**, **Araceli Rozas** y **Encarnación Velasco**.

(Bilbao, a 21 de octubre de 2021).- El Alcalde **Juan Mari Aburto** ha sido el encargado de entregar esta tarde los premios “**Bilbao, Ciudad Amigable con las Personas Mayores**”, que reconocen la dedicación y entrega excepcional de personas mayores de 60 años que destacan por su contribución para hacer de la Villa un lugar más amigable para vivir.

Estos galardones reconocen la trayectoria personal y altruista de quienes desde hace muchos años están comprometidas con la convivencia, y la mejora de la calidad de vida de la capital vizcaína, sus barrios y sus vecinos y vecinas, a través de una actitud permanente de servicio y una forma ejemplar de ser, estar, actuar y relacionarse con ellos y ellas.

Este año, el Consistorio ha querido reconocer a:

- **Iñaki Irigoien**, bilbaino nacido en 1935, por su contribución al mundo del folklore vasco y más concretamente de la danza vasca.
- **Araceli Rozas**, de 70 años, nacida en León y vecina del barrio de Zurbaranbarri, por su labor de cuidados a personas mayores y con problemas de drogodependencia, a través de la Cruz Roja, como trabajadora en su vida profesional y, después, como voluntaria,.
- **Encarnación Velasco**, bilbaina de 93 años por su valentía, decisión y su carácter servicial. En su juventud, Encarnación, con escasos recursos, emigró a Bélgica, para poder ofrecer a su hijo una vida con mayores oportunidades. A su regreso a Bilbao, destaca su participación en las diferentes actividades sociales del barrio de Errekalde.

El Alcalde Juan Mari Aburto ha felicitado a las personas homenajeadas a quienes ha dedicado unas palabras, “*sois ejemplo por muchas razones. Los tres compartís el compromiso de construir una ciudad mejor, una sociedad mejor donde los valores son los cimientos. Gracias de corazón. Por dar sin pretender recibir, por enseñar lo mejor de vosotros, por estar al servicio de los demás... Os animamos a continuar haciéndolo. Sois el modelo de envejecimiento activo que queremos*”.

GALA “BILBAO, CON LAS PERSONAS MAYORES”

La entrega de estos reconocimientos ha sido parte de la Gala “**Bilbao, con las Personas Mayores**”, organizada por el Consistorio y conducida por Joseba Solozabal y Agurtzane Bilbao, presentadores del Grupo Nervión. El evento se ha celebrado en el Teatro Campos Elíseo y ha contado con la asistencia de cientos de personas mayores, quienes han disfrutado de las actuaciones de Asier Bilbao y Los Chimberos.